



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko otsailaren 14an

16 ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:**

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da podologi laguntza sar dezan osasun zerbitzuetan, «Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua» Parlamentuko Taldeak aurkeztua (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ikusentzunezkoen Kontseilu Nagusia sortu eta lurralde-telebista abian jar dezan, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldeak aurkeztua (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da haurrei buruzko lege bat egin dezan, «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentuko Taldeak aurkeztua (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da tributuei buruzko lege orokor bat egin dezan, «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentuko Taldeak aurkeztua (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da landa-garapenari buruzko lege bat egin dezan, «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentuko Taldeak aurkeztua (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da konponbide bat eman diezaion D ereduari Donibane, Ermitagaña eta Mendebaldean, «Euskal Herritarrok» Parlamentuko Taldeak aurkeztua (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sare publikoan D eredia eskaini dezan auzo eta herri guztietan, «Euskal Herritarrok» Parlamentuko Taldeak aurkeztua (9. or.).
- Adierazpen politikoa, Augusto Pinochet Ugarte estraditatzeko prozesua dela eta. Bozeramaileen Batzarrak onetsia (10. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Nafarroa-Euskal Autonomia Erkidegoa-Akitania Lankidetzta Protokoloak finatzaturiko proiektuei buruzko galdera, José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentari jaunak egin (11. or.).
- Ehizako eta arrain-hazkuntzako eta oihanberritzeko proiektuak eta azterlanak kontratatzeke ereduari buruzko galdera, José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentari jaunak egin (11. or.).
- Agoitz eta Orotz-Betelu artean, Nagoretik, bide alternatibo bat egiteari buruzko galdera, «Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco» Parlamentuko Taldeak egin (12. or.).

- Azagran gas naturala jartzeari buruzko galdera, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldeak egin (13. or.).
- Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari atxikiriko funtzionarioen plantilla handitzeari buruzko galdera, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldeak egin (13. or.).
- Nafarroako Gobernuaren eta haren menpeko erakunde autonomoen giza baliabideen kudekatea pribatizatzeari buruzko galdera, Fernando Viedma Molero foru parlamentari jaunak egin (14. or.).

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da podologi laguntza sar dezan osasun zerbitzuetan**

«IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA» PARLAMENTUKO TALDE - AK AURKEZTUA

«Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua» Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da podologi laguntza sar dezan osasun zerbitzuetan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko otsailaren 7an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osasun Batzordean burutzea. Erregela-menduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko otsailaren 8an

Jarduneko Lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

### **MOZIOAREN EDUKIA**

"Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua" Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean hurrengo mozioa aurkeztu du Osasun Batzordean eztabaidatzeko.

Oinak oso garrantzitsuak dira bizitza kalitatea izateko. Gizakiok egiten ditugun gauza gehienak egiteko beharrezkoa da oinez ibiltzea. Hala ere, podologia ez dago, egun, osasun zerbitzuaren barrenean. Gure osasun-sistemak ahanzi egin du gure gorputzeko atal nagusi bat: oina. Oinarrizko osasun laguntza ez da doakoa, gaixoez espezialista pribatuengana jo behar izaten baitute, non eta patologia larriren bat ez den; patologia horiek, sarritan, ezgaitasun funtzionala eragiten dute.

Zenbait gaixotasun sistemikoren isla da oina. Bostehun prozesu sistemiko inguru gauzatu daitezke oinetan. Diabetikoen % 57k gutxi gorabehe-

ra du patologia arinen bat oinetan, eta % 33k larriren bat. Kontu horrek garrantzi handia du, gorputzadarrak eta hatzak moztea arazo larria baita diabetikoentzako. Hiesaren antzeko gaixotasun kronikoek zenbait konplikazio eragiten dituzte, hala nola, onikopatiak, mikosia; beste gaixo batzuei dagokienez, gaitzei aurrea hartzeko oinarrizko osasun laguntza izanen balute, ez lukete gero tratamendu garestiagoa beharko, eta podologi arazoan ondoriozko ezintasunak ere saihestuko liriteke.

Ez da dudarik gizaki gehienok ez dugula izaten, jaiotzerakoan, oinetako gaixotasunik izaten. Aldiz, 65 urterekin, % 95ek du podologi arazoan bat hurrengoren arazoaren batengatik: oinen zahartzea, oinei emaniko tratu txarra, geldi egoeta, deformazioak, gaixotasunak eta disfuntzioak. Herritar horientzat oso da garrantzitsua podologi laguntza osasun zerbitzu publikoetan sartzeta eta, horrela, oinetako gaitzen kalitatezko prebentzio, diagnosi, terapia eta errehabilitazioa izatea.

Adineko herritarrak geroz eta gehiago dira eta horien bizi-itzaropena dezente hobetu da. Sarritan –hala nola, 80 urtetik gaindikoak eta alargunen kasuan–, diru eskasiak eta oinarrizko osasun laguntzarik ezak dakarrena da oinen osasuna alde batera uztea; horrek ondoez fisiko eta psikikoa du ondorio, eta, baita ere, adinduen mugatze funtzionala eta ezgaitzea behar baino lehenago gertatzea.

Podologi zerbitzuak lehenatasuna du arrisku-tal-deetakoak direnentzako eta 65 urtez gaindikoentzako, horiek eutsi egin behar baitiote, eta ahal bezainbat luzatu, oinez ibiltzeko ahalmenari eta horrek ematen duen independentziari. Podologi laguntza osasun zerbitzuetan sartzeta jende guztiak hartuko luke ontzat, eta, bereziki, eguneroko bizitzan podologi laguntza behar-beharrezkoa dutenek.

Horiek horrela, hona erabaki proposamena.

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentua premiatzen du hurrengo hauek egin ditzan:

1) Sei hilabeteko epearen barrenean, oinarrizko osasun laguntzaren eta osasun laguntza espezializatuaren barne sar dezala podologi laguntza, eta podologo lanpostuak betetzeko deialdia egin dezala prebentzio laguntza emateko, osasuna sustatzeko, arrisku taldeak zehazteko eta oinetako gaitzei tratamendu espezializatua emateko, aurretik ezarritako arau eta irizpideen arabera laguntza-estandarrei jarraiki.

2) Lehenbailehen har dezala bere gain podologi laguntza osoa ematea 65 urtez gaindiko herritarrei Nafarroa osoan; hori egiteko oinarrizko osasun laguntzako zentroak erabil ditzala eta osasun laguntzako zentro espezializatuak, eta, adinduei laguntza hori emateko arazoak dauden lekuetarako, hitzarmenak egin ditzala podologiako espezialistekin.

Iruñean, 1999ko abenduaren 21ean

Bozeramailea: José Miguel Nuin Moreno

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Ikusentzunezkoen Kontseilu Nagusia sortu eta lurralde-telebista abian jar dezan**

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA» PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

«Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Ikusentzunezkoen Kontseilu Nagusia sortu eta lurralde-telebista abian jar dezan”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko otsailaren 7an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak emendakinek aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko otsailaren 8an

Jarduneko Lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

### **MOZIOAREN EDUKIA**

Juan José Lizarbe Baztánek, “Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 192. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, non mozioak arautzen diren, mozio hau aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuko hurrengo Osoko Bilkuran eztabaida dadin. Mozio honen bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen da Ikusentzunezkoen Kontseilu Nagusia sortu eta Nafarroako lurralde-telebista abian jar dezan.

Horiek horrela, Osoko Bilkurak hurrengo erabakia onets dezala proposatzen dugu:

Nafarroako Parlamentuak zenbaitetan eztabaidatu du ea Nafarroako telebista-eskaintza zertan den, bai eta lurralde-telebista sortzeko aukera ere; atera duen ondorioa izan da Nafarroako Foru Komunitateak beharrezkoa duela telebista hori, Nafarroako kultur izaera zabaltzeko tresna eta eskualde guztien arteko ikusentzunezko komunikazio-bide izan dadin.

Gizartearen behar hori ez da gauzatu gure komunitatean. Izan ere, alde batetik, Nafarroak izan dituen gobernuak uste izan dute Nafarroako ekonomiarentzako gehiegizko kostua zela hirugarren kanala sortzea, eta, bestetik, orain arteko legediek uzten zuten aukera bakarra zen hirugarren kanalei buruzko legea aplikatu eta telebista publikoa sortzea.

Orain, egoera bestelakoa da, eta indarrean dagoen legediak –lurreko onda bidezko eta kable bidezko telebistari buruzko legediak– aukera ematen du lurralde-telebista batek telebista kanal analogikoa izan dezan eta baita eskaintza digitala ere; horrela, gure gizarteak hainbeste nahi duen hori egiteko aukera bada.

Heldu da momentua lurralde-telebista bat sortzeko pausoak emateko. Telebista horren kontrol publikoa ziurtatzeko, telebista horrek publikoa behar luke, baina arlo horretako enprekin batera kudeatua, eta, telebista horretan, bermatuta behar lirateke ondokoak: informatiboen aniztasun

eta objektibotasuna, programazioaren kalitatea, eta nafar guztiek, geografi mugetan gaindi, telebista hori ikusteko aukera librea eta orokorra izatea.

Beraz, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldearen ustetan, lurralde-telebista hori sortzeko eta abian jartzeko beharrezko da, aurretik, Ikusentzunezkoen Nafarroako Kontseilu Nagusia sortzea.

Kontseilu horrek eskumena izanen du, besteak beste, Nafarroan lurralde-telebista publikoa sortzeko beharrezkoak diren ekimen guztiez arduratzeko. Halaber, kontseilu horren eginkizun izanen dira hurrengoak: ente publiko bateko administrazio kontseilu batek izaten dituenak; Nafarroan,

Radio Televisión Española-rekin dauden hitzarmenen bilakaera aztertzea, baldin eta hitzarmenik bada; lurralde-telebista eta -irratia kontrolatzea; ardua garrantzitsua izatea lurralde-telebista eta -irradi analogiko nahiz digitalen adjudikazio prozesuan. Horietaz gain, betiere, informatiboen aniztasuna eta objektibotasuna bermatu beharko ditu eta baita programazioaren kalitatea eta nafar guztiek ikusteko aukera izatea ere.

Nafarroako Parlamentuak hurrengo erabakia onetsi du: Nafarroako Gobernua premiatzea, Ikusentzunezkoen Kontseilu Nagusia sortu eta lurralde-telebista abian jar dezan.

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 26an

Bozeramailea: Juan José Lizarbe Baztán

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da haurrei buruzko lege bat egin dezan**

### *«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA» PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA*

«Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da haurrei buruzko lege bat egin dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko otsailaren 7an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko otsailaren 8an

Jarduneko Lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

### **MOZIOAREN EDUKIA**

"Nafarroako Demokraten Elkargunea" Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua babesean, hurrengo mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuraren aurrean.

Nabarmena eta begi bistakoa da ongizatearen estatuak lortutakoa ez dela jende guztiarengana

berdin heltzen. Justizia soziala lortzeko, bide luzea geratzen da oraindik ere.

Egia da gizarte zerbitzuek ekintzak egiten dituztela eta beharrezko dauden haurrei laguntza ematen dietela; baina, hala ere, egiteko asko dago oraindik benetako aukera berdintasuna lortzeko eta aukera berdintasun horrek ez ditzan oztopo izan ekonomi, hezkuntza, famili edo gizarte-kontuak.

Nafarroako Demokraten Elkargunea alderdian ustez, funtsezkoa da haurren eskubideak aldeztzea, defendatzea. Orobat, gure ustez, lehenbailehen areagotu behar dira zenbait ekintza, hala nola, informazioa ematea, sentiberatasuna piztea eta erantzukizuna banatzea; ekintza horiek gizarteari zuzendu behar zaizkio, eta helburua da arazoei aurre hartzea eta arriskuan dauden haurren berri lehenbailehen izatea.

Horregatik, Nafarroako Demokraten Elkargunekook uste dugu haur abandonatuen tutoretza xede duten baliabideak areagotu egin behar direla bai eta haurrak familietan jarraitzea xede duten baliabideak ere; halaber, gure ustez, indartu egin beharko lirake familiek haurrak hartzeari buruzko programa eta adopzio programa.

Orobat, areagotu egin beharko lirake gizarte-arriskuan dauden adingabeentzako errehabilitazio-neurrietarako baliabideak.

Horiek horrela, hona erabaki proposamena:

Nafarroako Gobernuak, hamar hilabeteko epean, haurrei buruzko lege bat eginen du, eta lege horrek bultzatu egingen du gizarte zerbitzuek laguntza ematea, eta Gobernuaren departamentu

guztien arteko koordinazioa.

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 31n

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da tributuei buruzko lege orokor bat egin dezan**

### *«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA» PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA*

«Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da tributuei buruzko lege orokor bat egin dezan”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko otsailaren 7an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak emendekin aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko otsailaren 8an

Jarduneko Lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

### **MOZIOAREN EDUKIA**

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduko 192 eta 193. artikuluen babesean, hurrengo mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran tramita dadin.

1998 urtean Kontuen Ganbarak, dirubilketaren kudeaketari buruzko txostenean, espresuki aipatzen zuen beharrezkoa zela “Tributuei buruzko lege orokorra” egin eta abiaraztea. Foru lege horrek osatuko lituzke zenbait gai garrantzitsuetan

egun dauden hutsuneak, hala nola, Foru Komunitatean sortutako tributuen kudeaketa, kitapena, bilketa, ikuskaketa, berrikusketa eta zehapen araubidea. Nafarroako Parlamentuak behin eta berriz iradoki dio hori Nafarroako Gobernuari, eta, orain arte, Gobernuak ez du ezer ere egin hori abian jartzeko.

Beharrezkoa da, orobat, zergadunaren estatu bat, non zergadunen eskubide eta betebeharrak bai eta horien bermeak ere arautuko baitira.

Tributu arloa oinarritzko arloa da, eta bi arau horiek ziurtasun juridikoa ekarriko lukete, eta, halaber, dirubilketaren kudeaketa hobetu eta egungo zerga iruzurra, dezentekoa baita, ekidin; Nafarroako Gobernuak ez dio behar adinako tinkotasunez aurre egiten egun zerga iruzurrari. Horiek horrela, hona erabaki proposamena:

1.- Kontuen Ganbarako gomendioei jarraiki, Nafarroako Gobernua premiatzen da, urtebeteko epean tributuei buruzko lege orokor bat egin dezan; lege horrek kobrantzen kudeaketaren eraginkortasuna eta ekonomia arautuko ditu eta ekidin egingen dira, horrela, ziurtasun juridiko eza eragiten duten lege-hutsuneak.

2.-Nafarroako Gobernua premiatzen da, urtebeteko epean zergadunen eskubide eta bermeei buruzko lege bat egin dezan.

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 31n

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

## Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da landa-garapenari buruzko lege bat egin dezan

### «NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA» PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

«Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da landa-garapenari buruzko lege bat egin dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko otsailaren 7an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko otsailaren 8an

Jarduneko Lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

### MOZIOAREN EDUKIA

"Nafarroako Demokraten Elkargunea" Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduko 192 eta 193. artikuluen babesean, hurrengo mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran tramita dadin.

Egun, joera da merkatuak globalizatzea, merkataritza-mugak desagertzea, kapitala eta teknologia –zeinak langileak baztertu egiten baititu– gehiago erabiltzea; horren ondorioz, nekazaritza-ustiapen gutxiago dago, langabezi gehiago eta geroz eta zailagoa da landa-gizartearen egiturari eustea, zerbitzuak garestiagoak baitira eta biztanle kopurua gutxiagotu egin baita.

Horregatik, irudimena erabili eta neurriak hartu behar dira, eta neurriek sortzaileak behar dute izan; neurri horien ondorioz, landa-eskualdeak erakargarri egin behar dira eta bizitza kalitatea hobetu.

Nafarroako landa-garapenari buruzko lege bat egitearen aldeko da CDN, eta Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuraren aurrean, hurrengo erabaki proposameta aurkeztu du:

1.- Nafarroako Gobernua premiatzen da, hamar hilabeteko epean Nafarroako landa-garapenari buruzko lege orokor bat egin dezan; lege horrek Nafarroako Foru Komunitatearen garapen orekatu eta harmonikoa ahalbidetu beharko du; halaber, lege hori egiterakoan, landa-inguru horretako sektore guztiak entzunen dira eta sektore guztiak hartuko dute parte.

2.- Nafarroako landa-garapenari buruzko lege horrek hurrengo printzipioak hartu beharko ditu oinarri:

a) Enplegua. Landa-inguruan enplegua areagotzeko ez da nekazaritza izanen oinarri bakarra; beste sektore batzuk ere erabili behar dira enplegua sortzeko: turismoa, teknologia berrien aplikazioa. Horrek esan nahi du landa-sektoreko enpresetan inbertitu behar dela; nekazaritzakoak ez diren enplegu aukerak sortuko dituzte enpresa horiek, eta mesede eginen die egun langabezia daukeneri: adin ertaineko pertsona eta emakumeei. Horrekin guztiarekin batera, landa-eskualdeetako enpresa txiki eta ertainak sustatu eta garatu behar dira, horretarako Nafarroako Gobernuaren eta Europako Batasunaren laguntzak erabiliz.

b) Ingurumena eta kultura. Bereziki landa-eskualdetako pertsonak izan dira ingurumena sustengatu eta kultura zaindu dutenak; pertsona horiek landa-ingurumenaren benetako zaindari izan dira. Eginkizun horrek saria merezi du, eta, beraz, landa-kudeaketarako urteko programak eskaini behar dira, eta, horiekin batera, kudeaketa horregatik dirulaguntzak; hori, administrazioak zuzenean parte hartzea baino hobe da.

c) Sustengarritasuna. Hartzen den neurri orok sustengarri izan behar du eta aurretik eginiko garapen-prozesua ebaluatzea ahalbidetu beharko du. Hartzen diren neurriek sektore anitzetarako izan behar dute baliogarri eta, orobat, orekari eusteko lagungarri, oreka ekonomiko, sozial, kultural eta ingurumen-orekari eusteko lagungarri hain zuzen.

d) Azpiegiturak. Betiere kontuan hartu beharrekoa izanen da azpiegiturak hobetzea, bai barnekoak (araztegiak, hiri-hondakin solidoak, kultur ekipamenduak, osasun ekipamenduak, hornidura sareak, elektrizitatea) bai kanpokoak (bide-sareak hobetzea). Azpiegitura horiek hobetzeko ahalegin ekonomikoa egin behar da, oraingo egoera hobetu dadin.

e) Lankidetzak. Gizartearen parte-hartzea izanen da nagusi, baina administrazioaren laguntza. Gizarte- eta ekoizpen-ahalmena badute herriek, eta giza baliabideak ere badituzte; horrela, egoera proposa dute modernizazioari ekiteko.

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 31n

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da konponbide bat eman diezaion D ereduari Donibane, Ermitagaña eta Mendebaldean**

### «EUSKAL HERRITARROK» PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

«Euskal Herritarrok» Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da konponbide bat eman diezaion D ereduari Donibane, Ermitagaña eta Mendebaldean”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko otsailaren 7an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Hezkuntza eta Kultura Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko otsailaren 8an

Jarduneko Lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

### **MOZIOAREN EDUKIA**

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldearen bozeramailea den Félix Puyok, Biltzarreko Erregelamenduaren 192. artikulua eta ondoko babesean, Hezkuntza eta Kultura Batzordean eztabaidatzeko hurrengo mozioa aurkezten du.

Justifikazioa:

1998-1999 ikasturterako Donibane-Ermitagaña-Mendebalde auzoetako 17 hurrek zonaldeko ikastxeren batean D ereduko lerro batean ikastea eskatu zuten. Gobernuak entzungor egin zion eskakizunari eta, ondorioz, Ermitagainako Auzo

Elkartek utzitako etxabe batean egin zuten ikasturte osoa, kosto guztiak gurasoek beren sakeletatik ordaindu zituztelarik. 1999-2000 ikasturte honen hasieran Jesús Laguna sailburu berriak, betirako soluzioa bilatzen zen bitartean, Amaiur Ikastolan kokatu zuen taldea, hurrengo ikasturterako gurasoekin adostutako soluzioa bilatuko zuela aginduz. Aurrematrikulazio garaia agudo iritsiko da eta oraindik ez da soluziorik aurreikusten. Bestalde, auzo horietan D ereduak ez da oraindik eskaintzen eta, ondorioz, gurasoek beren seme-alabak auzotik kanpo bidali behar dituzte. Arazoak soluzioaren bat premiaz behar duenez, honako proposamen hau aurkezten diogu Hezkuntza eta Kultura Batzordeari, bere egin dezan:

Erabaki proposamena:

Batzorde honek zera eskatzen dio Gobernuari:

1. laz Ermitagainako Auzo Elkarteen egoitzan ikasturte osoa eman zuten eta aurtengoan Amaiur Udal Ikastolan aurkitzen diren 4 urteko hurren taldeari gurasoekin adostutako behin betiko soluzioa eskain diezaion.

2. 2000-2001 ikasturtean Jose M<sup>a</sup> Uharte ikastetxean D ereduko lerroa eskaini dezan. Ondorioz, otsailean zabalduko den aurrematrikulazio kanpaina, Donibane, Ermitagaina eta Mendebaldeko guraso guztiek eskaintza horretaz baliatzeko aukera izanen dute eta beren 3 urteko seme-alabak Jose M<sup>a</sup> Uharte ikastetxean aurrematrikulatzeko aukera izanen dute.

Iruñean, 2000ko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Félix Puyo Rebollo



## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sare publikoan D eredia eskaini dezan auzo eta herri guztietan**

### *«EUSKAL HERRITARROK» PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA*

«Euskal Herritarrok» Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sare publikoan D eredia eskaini dezan auzo eta herri guztietan”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko otsailaren 7an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Hezkuntza eta Kultura Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritako arekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko otsailaren 8an

Jarduneko Lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

### **MOZIOAREN EDUKIA**

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldearen bozeramailea den Félix Puyok, Biltzarreko Erregelamenduaren 192. artikulua eta ondoko babesean, Hezkuntza eta Kultura Batzordean eztabaidatzeko hurrengo mozioa aurkezten du.

Justifikazioa:

Gero eta handiagoa da beren seme-alabek euskara eta euskaraz ikas dezaten nahi duten

nafar hiritarren kopurua. Asmo eta nahi hau Nafarroa Garaia osoan ematen da, nola zonalde euskaldunean hala zonalde misto eta ez-euskaldunean. Gauza jakina da euskara hobekien erakusten duen eredia D deiturikoa dela. Baina zonalde ez-euskalduneko gurasoek ezin dituzte seme-alabak euskaraz ikastera sare publikora bidali. Diskriminazio hau demokrazia batean onartezina izateaz gain, kaltegarria da haur horientzat, D ereduak soilik ahalbidetzen baitie egun bertako bi hizkuntza ofizialetako elebitasuna.

Erabaki proposamena:

Hezkuntza Batzordeak zera proposatzen dio Gobernuari:

1. 2000-20001 ikasturtean Nafarroako herri eta auzo guztietan D ereduko lerroak eskaini ditzan sare publikoan. Ondorioz, otsailean zabalduko den aurrematrikulazio kanpaina, Nafarroako guraso guztiek eskaintza horretaz baliatzeko aukera izanen dute eta beren 3 urteko seme-alabak beren herri edo auzoan aurrematrikulatzeko aukera izanen dute sare publikoko ikastetxeren batean.

2. Nafarroako haurrek beren herri eta auzoetan ikasi ahal izan dezaten, D ereduko lerroak zabaltzeko 20 haur hirietan eta 15 herrietan exijitzen duen 848/1988 Foru Aginduaren 6. artikulua baliogabetu dezan.

Iruñean, 2000ko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Félix Puyo Rebollo

## **Adierazpen politikoa, Augusto Pinochet Ugarte estraditatzeko prozesua dela eta**

### **BOZERAMAILEEN BATZARRAK ONETSIA**

Nafarroako Parlamentuko Bozeramaileen Batzarrak, 2000ko otsailaren 7an egindako bilkuran, hurrengo adierazpena onetsi zuen:

**Lehenengo.-** Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eskatzen dio ez oztopatzeko Augusto Pinochet Ugarte diktadore-ohi txiletarra Espainiako Estatura estraditatzeko prozedura judiziala, eta bideratzeko, horrenbestez, Entzutegi Nazionalak jarritako errekurtsio eta ekimen oro.

**Bigarren.-** Nafarroako Parlamentuak adierazten du Augusto Pinochet Ugarte diktadore-ohia nazioarteko zuzenbidearen arabera –Torturaren aurkako Hitzarmenaren arabera berezizki– epaitu dezaten nahi duela.

**Hirugarren.-** Nafarroako Parlamentuak adierazten du ez datorrela bat Estatuko fiskal nagusi Jesús Cardenal eta Entzutegi Nazionalako fiskalburu Eduardo Fungairiñoren bidez Espainiako

Gobernuak prozesu osoan zehar erakutsi duen jarrerarekin. Bi horiek, ministerio fiskalaren eginkizunen arabera jardun beharrez, Pinocheten abokatuen iritzia defenditu dituzte Entzutegi Nazionalan.

**Laugarren.-** Nafarroako Parlamentuak barne ministro britainiarari eskatzen dio Espainiako nahiz Britainia Handiko auzitegiek nazioarteko zuzenbidearekin bat etorri erabakitakoa betetzeko, eta horrenbestez, estradizio prozesua ez eragozteko.

**Bosgarren.-** Adierazpen politiko hau igorriko zaie Espainiako Gobernuko lehendakariari, Kanpo Arazoetako Ministerioari, Justizia Ministerioari eta Erresuma Batuak Espainian duen enbaxadari.

Iruñean, 2000ko otsailaren 8an

Jarduneko Lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Nafarroa-Euskal Autonomia Erkidegoa-Akitania Lankidetzaren Protokoloak finantzaturiko proiektuei buruzko galdera**

*JOSÉ M<sup>a</sup> AIERDI FERNANDEZ DE BARRENA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko otsailaren 7an egindako bilkuran, José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentari jaunak Nafarroa-Euskal Autonomia Erkidegoa-Akitania Lankidetzaren Protokoloak finantzaturiko proiektuei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko otsailaren 8an

Jarduneko Lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

### **GALDERAREN EDUKIA**

José María Aierdi Fernández de Barrenak, "Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Parti-

do Nacionalista Vasco" Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1.- Zer proiektu finantzatu ditu azken urteotan Nafarroa-Euskal Autonomia Erkidegoa-Akitania Lankidetzaren Protokoloak?

2.- Zer entitate izan dira protokolo horren onuradun?

3.- Zer baliabide erabili ditu Gobernuak azken urteotan programa horretan?

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 26an

Foru parlamentaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

---

## **Ehizako eta arrain-hazkuntzako eta oihanberritzeko proiektuak eta azterlanak kontratatzekeko ereduari buruzko galdera**

*JOSÉ M<sup>a</sup> AIERDI FERNANDEZ DE BARRENA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko otsailaren 7an egindako bilkuran, José M<sup>a</sup> Aierdi Fernández de Barrena foru parlamentari jaunak ehizako eta arrain-hazkuntzako eta oihanberritzeko proiektuak eta azterlanak kontratatzekeko ereduari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko otsailaren 8an

Jarduneko Lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

**GALDERAREN EDUKIA**

José María Aierdi Fernández de Barrenak, "Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco" Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1.- Ehizako eta arrain-hazkuntzako proiektuak eta azterlanak kontratatzeke, eta baita oihanberri-  
tzeke ere, babestutako gunek kudeatzeko eta ibaiak leheneratzeko proiektu eta azterlanak kon-

tratatzeko, zer kontratazio eredu jarraitu du zure departamentuak?

2.- Zein enpresak hartu zuten adjudikazioa? Zenbat puntu izan zituzten?

3.- Azken urte honetan erabilitako kontratazio-prozedura aldatu al da zerbaitetan? Aldatu bada, zertan aldatu da?

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 26an

Foru parlamentaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

---

## **Agoitz eta Orotz-Betelu artean, Nagoretik, bide alternatibo bat egiteari buruzko galdera**

### *«EUSKO ALKARTASUNA/EUSKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO» PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko otsailaren 7an egindako bilkuran, «Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco» Parlamentuko Taldeak Agoitz eta Orotz-Betelu artean, Nagoretik, bide alternatibo bat egiteari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko otsailaren 8an

Jarduneko Lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

**GALDERAREN EDUKIA**

"EA/PNV" Parlamentuko Taldeak Orotz-Betelun bizi direnek hartutako erabaki bat jaso du; kezkatuta daude, moztu egingen baitzaie, behar bada, Orotz-Betelu eta Agoitz lotzen dituen bidea.

Hori hala eginez gero, bi herrien arteko bidea 15 kilometro luzatuko da, eta horrek kalteak eraginen ditu ikasleengan, osasun zerbitzuan eta eskualdeko beste zerbitzuetan.

Hortaz, talde honek hurrengo galdera aurkeztu du, idatziz erantzun diezaioten:

1.- Agoitz eta Orotz-Betelu artean, Nagoretik, bide alternatibo bat egiteko asmoa al du Herrilan Departamentuak?

2.- Aztertu al du beste aukerarik? Hala bada, zeintzuk izan dira aukera horiek?

3.- Egitea erabakitzen den aukera edozein dela ere, adostu al du kaltetutako toki entitateekin edo ba al du adosteko asmorik?

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 26an

Foru parlamentaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

## Azagran gas naturala jartzeari buruzko galdera

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA» PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko otsailaren 7an egindako bilkuran, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldeak Azagran gas naturala jartzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko otsailaren 8an

Jarduneko Lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

### GALDERAREN EDUKIA

Juan José Lizarbe Baztanek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

"Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeak jakin duenez, gasa jartzen ari diren Nafarroako zenbait herritan dezente hase-

rra piztu da, zail suertatzen baita zenbait etxetan gas naturala jartzea.

Hain zuzen ere, zerbitzu hori izateko zailtasunak direla-eta, Azagrako Udalak herritarren kexa ugari jaso ditu; diotenez, bizilagun gutxiko etxetan eta famili bakarrekoetan, garesti da gasa jartzea, eta gasa jartzeko emakida duen enpresak eskatzen dituen baldintzei buruzko kexak ere izan dira.

Zerbitzu hori lortzeko egiten diren kritikak uxatzeko eta, baita, ezin leporatu ahal izateko zerbitzu hori lortzeko baldintzak enpresaren esku dardela, talde honek hau jakin nahi du:

- Etxetan zerbitzu hori –gas naturala, alegia– jarri ahal izateko zer irizpide dauden.
- Erabiltzaileentzako konexio horrek zer kostu duen.
- Azagran baztertutako eskari kopurua, eta zergatik baztertu diren.

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 26an

Bozeramailea: Juan José Lizarbe Baztán

## Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari atxikiriko funtzionarioen plantilla handitzeari buruzko galdera

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA» PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko otsailaren 7an egindako bilkuran, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentuko Taldeak Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari atxikiriko funtzionarioen plantilla handitzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko otsailaren 8an

Jarduneko Lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

### GALDERAREN EDUKIA

Juan José Lizarbe Baztanek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Gobernu Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak adierazi du "nahitaezkoa" dela departamentu horri atxikiriko funtzionarioen plantilla nabarmen handitzea, eta, horrela, departamentu horrek, administrazio kudeaketa soilaz gain, beste eginkizun batzuk ere egin ahal izanen dituela, hala nola, prebentzioa, antolamendua eta plangintza, eta

plantilla handitze horrek, orobat, departamentuaren lan arloak indartzeko ere balioko duela.

Ingurugiro kontseilariak komunikabideen aurrean adierazi du behar hori; hala ere, orain hilabete batzuk nabarmendu zuen hori Nafarroako alderdi sozialistak, eta, gai hori horregatik aipatzen da, espresuki aipatu ere, 2000ko Aurrekontua onesteko Nafarroako Gobernuarekin sinatutako hitzarmenean. Kontuen Ganbarak ere plantilla handitzea eskatu du.

Ingurugiro kontseilariak ezagutzera eman duenez kontu hori, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeak uste du beharrezkoa dela jakinaraztea, halaber, kezkatuta dagoela arazo hori dela eta. Beraz, Nafarroako Gobernuari hurrengo galdera luzatu dio idatziz erantzun diezaien:

- Ingurugiro Zuzendaritza Nagusirako zer plantilla organiko proposatu den.

- Proposamen horrek departamentuaren beharrak betetzen dituela uste al du Ingurugiro kontseilariak?

- Antolaketa eta Informazio Sistemen Zuzendaritza Nagusiak plantilla organiko horri buruz eginko txostena.

- Txosten horrek duen proposamenak departamentuaren beharrak betetzen dituela uste al du Ingurugiro kontseilariak?

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 31an

Bozeramailea: Juan José Lizarbe Baztán

## **Nafarroako Gobernuaren eta haren menpeko erakunde autonomoen giza baliabideen kudekatea pribatizatzeari buruzko galdera**

*FERNANDO VIEDMA MOLERO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko otsailaren 7an egindako bilkuran, Fernando Viedma Molero foru parlamentari jaunak Nafarroako Gobernuaren eta haren menpeko erakunde autonomoen giza baliabideen kudekatea pribatizatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko otsailaren 8an

Jarduneko Lehendakaria: Amelia Salanueva Murguialday

### **GALDERAREN EDUKIA**

Fernando Viedma Molerok, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Lehendakaritza eta Barne kontseilariak, apirilaren 30eko 34/1998 Foru Aginduaren bidez (62. NAO, 98-05-25koa), hurrengo espedientea onetsi zuen: Nafarroako Gobernuak eta haren erakunde autonomoetako giza baliabideak kudeatzeko sis-

tema integralaren mekanizazio integrala prozedura irekiaren bidezko lehiaketaren bitartez kontratatu eta gero ezartzeko espedientea. Baldintza orokorrekin ezartzen zutenez, kontratuaren aurrekontua 170.000.000 pezetakoa zen eta betetze epea urtebetekoa zuen.

Lehendakaritza eta Barne kontseilariak, irailaren 14ko 137/1998 Foru Aginduaren bidez (116. NAO, 98-09-28koa), sei enpresak aurkeztutako eskaintzak baloratu eta horiek lortutako puntuen arabera, hurrengo onetsi zuen: Nafarroako Gobernuak eta haren erakunde autonomoetako giza baliabideak kudeatzeko sistema integralaren mekanizazio integralerako behar diren zerbitzu informatikoen kontratazioa eta ondoko ezarpena "Informática El Corte Inglés S.A." enpresari adjudikatzea.

Foru agindu horrek ezartzen zuenez, aurrekontuko 60.000.000 milioi 1998ko Aurrekontuekin finantzatzekoak ziren eta 110.000.000, berriz, 1999ko Aurrekontuekin.

Baldintza orokorrekin ezarritako betetze-epea bete zenetik badira bost hilabete, eta zenbait gauza jakin nahi dira kontu horri guztiari dagokionez:

1.- Zer arrazoi tekniko eta politikogatik pribatizatu ditu departamentuak Nafarroako Gobernua eta haren erakunde autonomoen giza baliabideen kudeaketa?

2.- "Informática El Corte Inglés S.A." enpresak kontratua bakarrik bete al du edo bakarrik ari al da betetzen?

3.- Enpresa horri esleitutako kontratuaren betetzea zertan da?

4.- Nafarroako Gobernua non ari da ezartzen kudeaketa sistema berria?

5.- Esleipena hartu duen enpresak zer diru-kopuru jaso du?, zein egunetan jaso ditu kopuru horiek?

Iruñean, 2000ko urtarrilaren 31n

Foru parlamentaria: Fernando Viedma Molero



NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA  
ORRIA

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefona* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

